

MOZIO ARRUNTA,

DONOSTIAKO PORTUKO ONTZIEN AMARRALEKUAK EMATEKO PROZEDURA ETA HORIEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZKOA

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Donostiako kaian ontzien amarralekuak emateko eta horien erabilera arautzeko prozedurak sortu dituen arazoak bideratzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Euskal Herriak lotura estua du itsasoarekin. Mendeetan zehar, itsasoari begira eta itsasora emana bizi izan da. Harreman hori ez da ogibide baten sorrera eta garapenera bakarrik mugatzen; aitzitik, euskal gizarte osoaren bizimodua baldintzatu du, baita beste herrialde batzuekiko harremanak ere. Bestela esanda, euskaldunok aspaldidanik egin dugu itsasoa lantoki, baina itsasoari lotutako jarduera ez da inoiz sektore ekonomiko hutsa izatera mugatu. Balio kulturala izan da, euskaldunon kultura-ondarearen gordailua. Eta portuek eta kaiek kultur transmisiorako espazio gisa bete duten funtzioa agerikoa da, horietan iraun baitute itsas munduko tradizio eta ohiturek.

Azken urteotan, ordea, agerikoa da euskal kostaldeko eta, batez ere, portuetako errealitatea erabat aldatu dela. Donostiakoa da adibiderik onenetako bat. Arrazoiak askotarikoak dira, baina horien artean dago kirol-portuak eta kirol-nabigazioa sustatzeko aurrera eraman den egitasmoa. Aisialdirako ontzi flota handia, gorantz doan eskaera amaigabea... Horrela, arrantza-portu izan ziren asko kirol-portu bihurtu dira, eta errealitatea aldatzearekin, arazo eta desoreka berriak sortu dira. Horren adibide garbia amarralekuen auzia da.

Ekonomiako, Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urriaren 19ko 5330 Aginduak laketontzien titularrei amarralekuak emateko prozedura eta horiek erabiltzeko emakiden araubidea arautu zituen, baita haren aplikazio eremua ere. Data horretatik aurrera EAEko kostaldeko hainbat portutako amarralekuen emakida prozedurak ireki ziren, besteak beste, Donostian.

2017ko urriaren 19ko aginduaren helburua "araz kanpoko" egoera bat erregularizatzea eta eguneratzea eta amarralekuak erabiltzeko baimen-prozedurak arautzea bazen ere,

hura ezartzen hasteak kezka eta ezinegona sortu zuen. Horren adibide dira abian jarritako salaketa judizialak, hala nola Euskadiko Kirol Portuen zuzendariaren aurka Donostiako epaitegiak 2022ko urriaren 29an onartutako kereila, edo herritarren aldetik jaso diren esku-hartze eta laguntza eskaera ugariak. Donostiako egoera zinez da esanguratsua, 50 salaketa eta kexa baino gehiago jarri baitira.

Kezka eta ezinegon hori, gehienbat, amarralekuak esleitzeko 5330 Aginduaren 14. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideek eragin zuten. Zuzenago esanda, irizpideen zehaztugabetasunak eta horiek behar ez bezala aplikatzeak. Aipatu artikulua arabera, amarralekuak esleitzeko “aintzat hartuko dira ontziaren neurri zehatzak (luzera, zabalera eta sakonera), eskainitako amarralekuekin alderatzeko”; gainera, “lehentasuna emango zaie amarralekua eskatzeko unean ontzia baduten eskatzaileei eta amarralekuko neurrietara hobekien egokitzen diren ontziei, betiere ontziaren luzerak eta zabalerak aukera ematen badute atrakatzean maniobra egokiak egiteko”; eta eskatzaileen artean “berdinketa egonez gero, notario aurrean zozketa egingo da”. Bada, agindua ezarri den portuetako amarratzaileek salatu dutenez, oinarrietan jaso gabeko irizpideak aplikatu dira, plazarik gabe geratu diren ontziek baino aprobetxamendu hobea ez duten plazak esleitu dira, edo berdinketa-egoera batzuk ez dira notarioaren aurrean ebatzi.

Irregularitasun horiek guztiek ondorio judizialak izan dituzte. 2023ko otsailean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiak bertan behera utzi zuen EKP erakundeak 2021ean Donostiako kaian egindako amarralekuen banaketa.

Bestalde, aginduak ez du antzintasuna irizpidetzat hartzen, eta, beraz, ez ditu babesten portuek historikoki bete duten funtzio sozialaren jarraipena bermatzen duten erabiltzaileak, hala nola erretiroa hartu ondoren plaza bat ziurtatua zuten arrantzaleak.

Amarralekuak berritzeko prozesuak sortutako gatazka, arau berria egin aurreko elkarrizketaren bidez saihestu zitekeen. Eta hori da, hain zuzen ere, Donostiako amarratzaileen elkarteak eskatzen duena, elkarrizketa. Esan bezala, Donostiako portuaren errealitatea aldatu egin da, eta gaur egun inork gutxik ezagutzen du horko egoera amarratzaileek beraiek baino hobeto, gehienak eguneroko erabiltzaileak baitira. Hala ere, arau berria osatzeko prozesuan ez dira aintzat hartuak izan.

Horregatik, honako mozio hau aurkezten dugu:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza berriari abia ditzala 2017ko urriaren 19ko 5330

Agindua berrikusi eta egokitzeko izapideak, Donostiako portuan sortu den gatazkaren iturburuan dauden irizpideak zuzenduz.

2.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza berriari behin-behinean gelditu ditzala abian dauden edo aurrekusiak dauden amarralekuen esleipen-prozesuak, eta zuzeneko elkarriketa hasi dezala kaltekin, hots, amarratzaileen elkartearekin, egoera bideratzeko.

3.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza berriari 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua berrikusteko prozesua gardentasunean eta partaidetzan oinarritu dezala, eta Donostiako Udaltzarekin ere elkarlanean garatu dezala, horretarako Portuko Udaltzaren Batzordea sortuz, ekainaren 28ko 2/2018 Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Legearen I. kapituluko 4. artikuluan xedatuta dagoen bezala.

4.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza berriari, 2017ko urriaren 19ko 5330 Agindua egokitzeko lanketan, aintzat har ditzala honako irizpide hauek:

- Donostiako portuaren egoera berezia; beraz, arauak bertako errealitatea aintzat hartu eta horretara egokitzeko aukera eskaini behar du, betiere bereizkeriarik sortzen ez bada.
- Amarralekuen esleipenean donostiarrek lehentasuna izatea: lehenik, Donostian erroldatuta daudenak (errolda zaharrena dutenak lehenik eta gutxienez urtebeteko errolda dutenak), eta ondoren, hurrenez hurren, eskualdeko udalerrietan erroldatuta daudenak (gutxienez urtebetez); EAEko beste herrietan erroldatuta daudenak (gutxienez urtebetez) eta, azkenik, beste autonomia erkidegoetan erroldatuta daudenak (gutxienez urtebetez).
- Amarralekuak esleitzeko prozeduran antzintasuna irizpide bat izatea eta itsas kostaldeko ondare materiala eta inmateriala berreskuratzen edo kontserbatzen duten ontziei lehentasuna ematea.

Donostian, 2024ko uztailaren 5ean

Juan Karlos Izagirre Hortelano

EH Bildu udal taldeko bozeramailea